

ESTANKONA

fruitua

Borja Estankona kantaria Arratiakoa da. Bizkaitarra 1979an jaio zen eta oso lotuta egon da kultura eta musikaren arloran urteetan. Estankona abeslariak, Arratia bertako beste bi lagunekin, Arean taldea sortu zuen 2004an eta, bi urteren buruan, bi disko argitaratu zituen. Arean taldeari bukaera eman zioten eta bere bakarkako bideak itxura hartuko du, Estankona egitasmoa deritzona.

Estankona kantariak "Fruitua" diskoa 2012ko uda garaian grabatu du. Iñaki Alonso soinu teknikariarengana jo du honek Gasteizen duen Sonora estudioetara, eta hor grabaketa, nahasketa eta masterizazioaz arduratu da. Estankona abeslariak aurreko diskoa egiten lagundu zioten musikari berberak izan ditu alboan. Ixaso Etxebeste baxulariak, Jimmy Arrabit bateriajotzailerak eta Estankonak hiruko bikaina osatu dute, eta euren arteko elkar ulertzea eroso da eta, horrek, bere eragina du Estankonak egiten duen musikan.

Borja Estankonak bere ibilbide musikari Estankona izena eman dio. Estankonaren bigarren diskoak "Fruitua" du izenburu. Estankona kantariaren diskoko abestiek erritmo eta musika estilo desberdinak jorratzen dituzte baina kontraste horrek ez du esan nahi linealtasun baten faltan dagoenik. Estankona kantariaren musika paleta edo estilo sorta askotarikoa da, horren gainera dago musika horrek helarazten digun sosegua, lasaitasuna eta musika bera entzuteko gogoia. Vals, ska, country amerikarra, reggae, rocka... itxuradun abestiak aurkituko ditugu kontrastea egiten, baina abesti guztiek batzen eta isurtzen duten emozio grinak biribilduko du disko osoa. Lan estimagarria sentiberatasun aldetik ere bai. Baina azken bi abestiek jarriko diote kontrapuntua Estankona kantariaren "Fruitua" lanari. Azkenaurrekoan neurrizko indar musikaren igoerak potentzia ematen dio abestiari. Azken kantuarik, kantuari berari bueltak eta itzuliak emango dizkio etengabe hamar minutuz eguneroko gauza txikiak gordetzen dutelako handiena. Estankona kantariaren hitzak barrura begiratzen dute, barrutik esandakoak botako dizkigu batzutan tonu surrealistarekin eta beste batzutan bizitzaren errealitate gordinarekin.

ritxi aizpuru (2012ko azaroaren 13)



1.- Estankona kantariaren "Estankona" lehen diskoak harritu gintuen bere emaitzarekin, eta orain bigarrenarekin dator erakustera jaso duen "Fruitua". Ba al dago aldaketarik?

Lehen diskoan izan nuen kantugintza ulermenari jarraiki egin dut lan disko berrian ere. Esan diezazuket lan honetan, agian era kontzienteago batean, oreka eta borobiltasuna izan direla lortu nahi nituen bi kalitateak. Eta, zorionez, lortu ditut. Kontrastez beteriko lan bat den arren, pultso bat mantentzen da disko guztian zehar.

2.- Estankona kantariaren "Fruitua" aurrekoa baino lasaiagoa da. Bestean bazen Estankonaren bi munduen talka, orain sentiberatasuna, orain aztoramena eta konbultsioa. Berria linealagoa al da?

Nire bakarkako lehen diskoan hutsa eta betearen, amorrua eta hauskortasunaren arteko distantziak nabarmenagoak ziren. "Fruitua" diskoan bada amorrua, bada sentiberatasuna eta beste emozio mota asko ere, baina ez daude hain urruti bata bestearengandik. Sentimendu guzti hauen jatorria den zuhaitz enborra sendo senti daiteke diskoan.

3.- Estankona kantariaren hitzek beti oso barruko gauzak adierazten dituzte. Ia beti introspektiboa al zara?

Abesterakoan gehien gustatzen zaidana, begiak itxi, edo begirada aurrera zuzendu, nonbaitera, eta abesti horren jatorri diren bizipenen irudiak nire barruan dantzatzen ikustea da. Hori dela eta, askotan surrealista xamarrak dira nire letrak. Baina ez beti. Batzutan oso narratiboa izan ninteke eta dena modu logiko baten esan. Kasu hauetan, logikoki esaniko guzti horrek irudien dantza ez eragozteko lortu dut.

Borja Estankona: gitarra eta ahotsa

Ixaso Etxebeste: baxua

Jimmy Arrabit: bateria

www.estankona.blogspot.com.es blogean "Fruitua" diskoaren hitzak eskuragarri euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez

